

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko abuztua

2022ko abuztuan Euskal AEko landa-ostatueta erregistratutako gaualdiak % 5,6 igo dira

Apartamentu turistikoetan, sarrerak % 46,1 gehitu dira, eta gaualdiak % 26,5

Eustaten datuen arabera, 2022ko abuztuan, 27.320 sarrera eta 95.322 gaualdi izan dira Euskal AEko **landa-ostatueta**. Horrek esan nahi du sarrerak % 6,2 jaitsi direla urte batetik bestera, baina gaualdiak % 5,6 igo direla. 2019ko abuztuarekin alderatuta, COVID-19aren aurretik, 3.784 sarrera eta 4.836 gaualdi gehiago erregistratu dira. Aurreko hilabetearen, hau da, 2022ko uztailaren aldean, balantzea positiboa da bai sarreretan bai gaualdietan: % 12,0 eta % 32,3 igo dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abuztua 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	2021/08	2022/08	p.p. *	2022/08	p.p. *
EUSKAL AE	27.320	-6,2	95.322	5,6	3,49	3,10	63,7	1,1	69,1	1,7
Estatukoak	20.678	-20,7	76.653	-6,7	3,71	3,15	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.642	116,3	18.669	129,3	2,81	2,65	-	-	-	-
Araba/Álava	4.349	-17,9	13.035	-1,2	3,00	2,49	38,1	-1,5	46,1	0,2
Estatukoak	3.443	-28,6	10.495	-13,9	3,05	2,53	-	-	-	-
Atzeritarrak	906	89,9	2.540	154,3	2,80	2,09	-	-	-	-
Bizkaia	8.770	1,8	30.740	10,7	3,51	3,22	67,9	2,0	71,6	1,4
Estatukoak	6.729	-13,5	24.372	-2,4	3,62	3,21	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.041	143,0	6.368	126,4	3,12	3,35	-	-	-	-
Gipuzkoa	14.201	-6,7	51.547	4,6	3,63	3,24	73,5	1,7	79,0	2,8
Estatukoak	10.506	-22,0	41.786	-7,1	3,98	3,34	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.695	110,7	9.761	125,5	2,64	2,47	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Irailaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landa-ostatueta 2022ko abuztuan erregistraturiko lau sarreratik hiru Estatukoak izan dira. Hala ere, aurreko hilabeteetan bezala, atzeritar jatorriko pertsonen sarrera eta gaualdien hazkundera nabarmena izan da. Izan ere, joan den abuztuan atzeritarren 6.642 sarrera eta 18.669 gaualdi zenbatu ziren, aurreko urteko abuztuaren aldean % 116,3 eta % 129,3ko hazkundera, hurrenez hurren.

2022ko abuztuan landa-ostatueta igarotako gauen urte arteko igoerak ez dira homogeenak izan lurralde historikoka. Gipuzkoan % 4,6 igo dira, eta Bizkaian % 10,7; Araban, aldiz, % 1,2 jaitsi dira.

Sarreraren kasuan, Bizkaiak soilik izan du hazkunderik 2021eko abuztuaren aldean, 8.770 sarrera izan baititu guztira, hau da, % 1,8ko hazkundera. Gipuzkoan, aldiz, % 6,7ko urte arteko jaitsiera izan da (14.201 sarrera guztira), eta Araban 4.349 sarrera erregistratu dira (% 17,9ko jaitsiera).

Horrelako establezimenduetan eginiko batez besteko egonaldia 3,49 egunekoa izan da 2022ko abuztuan, 2021eko hil berean zenbaturiko 3,10 egunekoa baino luzeagoa.

Plazakako eta logelakako okupazio-mailek ehuneko 1,1 eta 1,7 puntuko urte arteko igoera txikia izan dute, hurrenez hurren: % 63,7koa izan da plazaka neurtzean eta % 69,1koa logelaka neurtzean.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko abuztuan**, sarrerak eta gaualdiak 21.057 eta 68.395 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko abuztuaren aldean, sarreraren urte arteko hazkundea % 46,1koa izan da, eta gaualdiena % 26,5koa. 2019ko abuztuarekin alderatuta, COVID-19aren aurretik, nabarmen gaintu dira orduan lortutako emaitzak: 11.748 sarrera eta 44.323 gaualdi, hau da, % 79,2 gehiago izan dira orain sarrerak eta % 54,3 gehiago gaualdiak.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Abuztua 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	2021/08	plazen arabera		apartamentuak	
	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	m/m-12 (%)	2022/08	2021/08	2022/08	p.p. *	2022/08	p.p. *
EUSKAL AE	21.057	46,1	68.395	26,5	3,25	3,75	51,6	4,1	65,2	6,1
Estatukoak	12.980	14,9	44.133	0,3	3,40	3,89	-	-	-	-
Atzerriarrak	8.077	159,6	24.262	141,4	3,00	3,23	-	-	-	-
Araba/Álava	2.402	54,9	11.458	19,3	4,77	6,20	34,5	1,1	70,2	3,6
Estatukoak	1.904	38,8	9.790	18,2	5,14	6,04	-	-	-	-
Atzerriarrak	498	179,1	1.668	26,0	3,35	7,43	-	-	-	-
Bizkaia	13.442	61,1	35.015	45,7	2,60	2,88	62,3	4,8	76,4	-3,5
Estatukoak	7.960	23,7	21.462	10,9	2,70	3,01	-	-	-	-
Atzerriarrak	5.482	186,6	13.553	189,3	2,47	2,45	-	-	-	-
Gipuzkoa	5.213	15,4	21.922	7,3	4,20	4,52	51,0	3,7	52,5	8,1
Estatukoak	3.116	-10,9	12.881	-21,4	4,13	4,69	-	-	-	-
Atzerriarrak	2.097	105,5	9.041	123,6	4,31	3,96	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentaje zko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hila batean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Irailaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Atzeritar jatorriko bisitarien kopurua, 2022ko abuztuan, sarrera guztien % 38,4 eta gaualdien % 35,5 izan da Euskal AEko apartamentu turistikoetan, urte arteko % 159,6ko igoera esanguratsuen ondoren sarreretan eta % 141,4koa gaualdietan.

Horrelako establezimenduetan eginiko batez besteko egonaldia 3,25 egunekoa izan da 2022ko abuztuan, 2021eko abuztuko (3,75 egun) baino laburragoa.

Lurralde historikoka, batez besteko egonaldia, 2022ko abuztuan, 4,77 egunekoa izan da Araban eta 4,20 egunekoa Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, 2,60 egunekoa izan da.


Euskal AEn, plazen okupazio-maila % 51,6koa izan da, hau da, ehuneko 4,1 puntu igo da 2021eko abuztuaren aldean. Apartamentuak neurtuta, urte arteko % 6,1eko igoeraren ondoren, okupazio-maila % 65,2koa izan da.

Uztaileko eta abuztuko balantzea: 2018tik 2022ra

Euskal AEko **landa-ostatu**etako sarreraren eta gualdien bilakaera positiboa izan da 2022ko uztailean eta abuztuan, bai 2021. urtearekin alderatuta (urte horretan, COVID-19aren pandemiak eragindako neurri murriztaile batzuek bere horretan jarraitzen zuten), bai aurreko urteekin alderatuta.

Hain zuzen ere, 2022ko uztailean eta abuztuan Euskal AEko landa-ostatuaren erregistratutako 51.705 sarrerak argi eta garbi gailentzen zaizkie 2021eko hilabete beretako 48.243 sarrerei eta 2019ko 45.005 sarrerei. Era berean, 2022ko uztaileko eta abuztuko udako hiletan izandako 167.362 gualdiak 2021eko 150.488 gualdiak eta 2019ko 154.948 gualdiak baino gehiago dira.

Sarrerak eta ostatu-gauak Euskal AEko landa-ostatuaren. Uztaile eta abuztua. 2018-2022




Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landa-ostatuaren, bi hilabeteko udako tarte horretan, okupazio-mailak ere gora egin du: plazaka neurtuta, % 56,2koa izan da, eta, logelaka neurtuta, % 61,1ekoa; aurreko urteko aldi berean baino ehuneko 2,9 eta 3,7 puntu gehiago, hurrenez hurren.

Euskal AEko **apartamentu turistiko**etako sarreraren eta gualdien bilakaera ere positiboa izan da nabarmen 2022ko uztailean eta abuztuan. 40.127 sarrera eta 128.824 gualdi zenbatu dira; aurreko urtean, aldiz, 25.207 sarrera eta 93.129 gualdi izan ziren. 2019an 22.692 sarrera eta 83.959 gualdi zenbatu ziren.

Sarrerak eta ostatu-gauak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Uztaila eta abuztua. 2018-2022



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio-oharrak

Landa-ostatuaren ETHren erantzun-tasa % 91,8 izan da, eta Apartamentu Turistikoena % 86,4, 2022ko abuztuan.

Eustatek eskerrak ematen dizkie eginiko ahaleginagatik inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62